

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gu adin txikikoak garenez, ez ditugu baliabideak produktu hau sortzeko, bakarrik beharko dugun mugikor aplikazioa diseinatzeko gai gara. Beste produktuak, hala nola hozkailua, eskanerra eta barra kodea, enpresa batzuei enkargatu beharko dizkiegu. Beraz, etxetresna elektronikoen enpresa batekin harremanetan jarriko gara hozkailuak lortzeko, adibidez FAGOR, LG edo WHIRLPOOL. Beste alde batetik, teknologia enpresa batekin jarriko gara harremanetan, eskanerrak eta barra kodeak hozkailuetan aplikatzeko. Esate baterako, EPSON EDO HP. Azkenik, aplikazioa sortzeko beste enpresa batekin jarriko gara harremanetan.

